Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3340

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 14koa, Energia eta Meategien zuzendariarena. Horren bitartez, Lemona Industrial, SAk eskatuta ohiko prozedurari jarraituz desjabetze-izapidean barne hartutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzen duena, harrobia ustiatu ahal izateko jarraian aipatzen diren lurrak desjabetzeko espedienteari hasiera emate aldera. Aipatutako merkataritza-sozietate hori da ustiapen horren emakidaren titularra, Baliabideak Ustiatzeko «Azurreka» izeneko C) Ataleko 12721. zenbakiko Emakida ematen dion 1990eko abenduaren 17ko Ebazpenaren arabera.

I.– Lemona Industrial SA merkataritza-sozietateak, baliabideak ustiatzeko «Azurreka» izeneko C) Atalaren emakidaren titularra den aldetik, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari eskatu dio desjabetze-espedienteari hasiera eman diezaion, Lemoako udalerrian kokatuta dagoen «Azurreka» izeneko meatze-ustiategiko lan, instalazio eta zerbitzuen eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatzeko.

II.– Meategien Legearen 105.3 artikuluak bere Erregelamenduaren 131.3 artikuluari loturik ezarritakoaren arabera, Lemoan kokatutako «Azurreka» ustiategiko Harrobiko Ustiatzeko eta Urteko Lan Planen Proiektua onartzeak lurrak okupatu beharra deklaratzea dakar. Alabaina, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak desjabetu beharrekotzat joko diren ondasun edo eskubideen zerrenda zehatza eta indibidualizatua egin beharko du eta, hain zuzen ere, zerrenda hori Cantera Galdames II SA merkataritza-sozietateak idazki batean jaso du, desjabetzea hasteko eskatzeko idazkian.

III.– 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko indarreko Legearen 17. artikuluaren eta ondorengoen arabera, ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zen, hamabost eguneko epearen barruan interesdunek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, ondasunen okupazioaren edo erabilgarritasunaren bidezkotasunari eta ondasunen egoera materialari edo legezkoari dagokienez, baita egokitzat joko duten beste edozein gairi dagokionez ere.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

3340

RESOLUCIÓN de 14 de abril de 2010, del Director de Energía y Minas, por la que se acuerda la necesidad de ocupación de los bienes y derechos incluidos en el trámite expropiatorio, por el procedimiento ordinario, iniciado a solicitud de Lemona Industrial, S.A., en orden a la iniciación del expediente expropiatorio de los terrenos que se relacionan para la explotación de la cantera, de cuya concesión es titular la mencionada mercantil a tenor de la Resolución dictada con fecha 17 de diciembre de 1990, por la que se le otorga la concesión de explotación n.º 12721 de recursos de la Sección C) denominada «Azurreka», cantera Monte Murguía, sita en Lemona.

I.– La mercantil Lemona Industrial, S.A., en su condición de titular de la concesión de explotación de recursos de la Sección C), denominada «Azurreka», ha solicitado del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, la iniciación del expediente expropiatorio, para la ocupación de los bienes y derechos afectados por las labores, instalaciones y servicios de la explotación minera denominada «Azurreka», cantera Monte Murguía, sita en el término municipal de Lemona (Bizkaia).

II.– Tal y como establece el artículo 105.3 de la Ley de Minas, en relación con el artículo 131.3 de su Reglamento, la aprobación del Proyecto de Explotación y de los Planes de Labores anuales de la Cantera que en la actualidad se corresponde con la explotación «Azurreka», sita en Lemona, lleva implícita la declaración de necesidad de ocupación de los terrenos, si bien, a tenor de lo dispuesto en el artículo 17.2 de la Ley de Expropiación Forzosa, el beneficiario estará obligado a formular la relación concreta e individualizada de los bienes o derechos que se consideren de necesaria expropiación, relación que formula en escrito de petición de inicio de expropiación la mercantil Lemona Industrial, S.A.

III.– Conforme al artículo 17 y siguientes de la vigente Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, se hizo pública la relación de los bienes y derechos para que, dentro de un plazo de quince días, pudieran los interesados formular alegaciones sobre la procedencia de la ocupación o disposición de los bienes y su estado material o legal y cualquier otra que consideren oportuna.

IV.– 2010eko apirilaren 13an, Energia eta Meategien Zuzendaritzaren aholkularitza Juridikoak txosten hau eman zuen, interesdun gisa ageri direnek egindako alegazioak aztertuta.

Aipatutako lege-aginduak eta oro har, eta haiekin bat etorriz, aplikatu beharreko gainerako xedapenak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Energia eta Meategien zuzendariaren 2009ko abenduaren 30eko iragarkian barne hartutako ondasun eta eskubideak okupatu beharra onartzea. Hain zuzen ere, iragarki horren bitartez jendaurrean jarri zen, Lemona Industria SAk eskatuta abian jarritako desjabetze-izapidearen barnean hartutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ohiko prozedurari jarraituz harrobia ustiatu ahal izateko lurrak desjabetzeko espedienteari hasiera emate aldera. Aipatutako merkataritza-sozietate hori da ustiapen horren emakidaren titularra, Baliabideak Ustiatzeko «Azurreka» izeneko C) Ataleko 12721 zenbakiko Zuzeneko Emakida ematen dion 1990eko abenduaren 17ko Ebazpenaren arabera.

Bigarrena.– Desjabetzearen eraginpeko ondasun nahiz eskubideen eta interesdunen deskribapena honako hau da:

Erregistro datuak:

Finka: Lemoako 174.a. 135. Lurzatia, 135. Poligonoa, 8.

Liburukia: 1449. Liburua: 45. Folioa: 216.

Deskribapena:

Desjabetu beharreko 3.132 m^2-ko lurzati-azalera duen zatia 112.150 m^2-ko guztizko eremuan, lur zatien plano expediente dagoen arabera, Goitia deituriko baserriarena den eta haren izeneko finkaren erregistroaren araberako hitzez hitzezko deskripzioari dagokiona, laurogeita bat zenbakia daukana Lemoako jurisdikzioan. Baserri horrek, bere labearekin batera, berrehun eta hirurogeita hemeretzi metro eta hogeita hamar dezimetro karratuko azalera neurtzen du, eta honako muga hauek dauzka: iparretik, auzo-bidea, eta hegotik, ekialdetik eta mendebaldetik, bere jabetzeko lurrak. Honako hauek dira bere jabetzako lurrak: etxaurrea eta haitz-tokiak, ehun eta hirurogeita bat metro eta hemezortzi dezimetro karratuko azalerarekin, eta honako muga hauek ditu: iparretik, auzo-bidea, eta hegotik, ekialdetik eta mendebaldetik, jabetzarekin berarekin. Echeostia deituriko etxalde bat, bi mila hirurehun eta hirurogeita bat metro eta berrogeita zortzi dezimetro karratuko azalera neurtzen duena, eta mugak dituena iparretik auzo-bidearekin eta hegotik eta ekialdetik Gortzar jaunaren jabetzarekin, eta mendebaldetik Ana de Garay andrearenarekin. Echeaurria izeneko beste etxalde bat, lau mila bostehun eta laurogeita zazpi metro eta laurogei dezimetro karratuko azalera neurtzen duena, eta honako

IV.– Con fecha 13 de abril de 2010 la asesoría Jurídica de la Dirección de Energía y Minas emite informe a la vista de las alegaciones formuladas por quienes comparecen como interesados.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación.

RESUELVO:

Primero.– Acordar la necesidad de ocupación de los bienes y derechos incluidos en el anuncio del Director de Energía y Minas de fecha 30 de diciembre de 2009 por el que se sometió a información pública la relación de bienes y derechos incluidos en el trámite expropiatorio, por el procedimiento ordinario, iniciado a solicitud de Lemona Industrial, S.A., en orden a la expropiación de los terrenos para la explotación de la cantera, de cuya concesión es titular la mencionada mercantil a tenor de la Resolución dictada con fecha 17 de diciembre de 1990, por la que se le otorga la concesión de explotación n.º 12721 de recursos de la Sección C) denominada «Azurreka», cantera Monte Murguía, sita en Lemona.

Segundo.– La descripción de los bienes y derechos afectados por la expropiación e interesados es la siguiente:

Datos registrales:

Finca: 174 de Lemona. Parcela 135. Polígono n.º 8.

Tomo: 1449. Libro: 45. Folio: 216.

Descripción:

Porción de superficie de parcela a expropiar de 3.132 m^2 en el área total de 112.150 m^2 conforme al plano de parcelario obrante en el expediente y correspondiente a la descripción registral literal de la finca denominada y perteneciente al caserío llamado Goitia, señalado con el número ochenta y uno en jurisdicción de Lemona. Dicho caserío mide con su horno una superficie de doscientos setenta y nueve metros cuadrados y treinta decímetros, y linda: por Norte con camino vecinal, y por Sur, Este y oeste con sus propios pertenecidos. Son sus pertenecidos: el antuzano y peñascales, con una superficie de ciento sesenta y un metros cuadrados y dieciocho decímetros cuadrados, y linda: por Norte, con camino vecinal, y por Sur, Este y Oeste, con la misma propiedad. Una heredad llamada Echeostia, que mide una superficie de dos mil trescientos sesenta y un metros y cuarenta y ocho decímetros cuadrados, y linda por Norte con camino vecinal, por Sur y Este con propiedad del Sr. Gortazar, y por Oeste con la de doña Ana de Garay. Otra heredad llamada Echeaurria, que mide una superficie de cuatro mil quinientos ochenta y siete metros y ochenta decímetros cuadrados, y confina: por Norte, con camino vecinal y por Sur, Este y Oeste, con propiedad del Sr. Gortazar. Cuatro

muga hauek dituena: iparretik, auzo-bidea, eta hegotik, ekialdetik eta mendebaldetik, Gortazar jaunaren jabetza. Lau puntu kardinaletan Gortazar jaunaren jabetzak. Echaburua deituriko beste etxalde bat, mila zazpiehun eta berrogeita lau metro eta laurogeita hamar dezimetro karratuko azalera neurtzen duena, eta lau puntu kardinaletan Gortazar jaunaren jabetzarekin mugatzen duena. Solobarria deituriko beste etxalde bat, bost mila zortziehun eta hemeretzi metro eta hamahiru dezimetro karratuko azalera neurtzen duena, eta honako muga hauek dituena: iparretik, ezponda eta ibaia, hegotik, auzo-bidea, ekialdetik, Gortazar jaunaren jabetza, eta mendebaldetik, Juan de Zuluaga jaunarena. Castañeta deituriko beste etxalde bat, mila seiehun eta berrogeita hiru metro eta hirurogeita hamar dezimetro karratuko azalerarekin, eta honako muga hauekin: iparretik, auzo-bidea, ekialdetik, Gortazar jaunaren jabetza, eta hegotik eta mendebaldetik, Juan de Zuluaga jaunaren jabetza. Chicharra deituriko beste etxalde bat, mila laurehun eta berrogeita bederatzi metro eta berrogeita hamaika dezimetro karratuko azalerarekin, eta honako muga hauekin: iparretik, Juan de Zuluaga jaunaren jabetza, hegotik eta ekialdetik, Areyzagako baroi jaunarena, eta mendebaldetik, Gortazar jaunarena. Bost mila eta berrogeita bederatzi metro eta hogeita hamar dezimetro karratuko azalera neurtzen duen larre bat, eta honako muga hauek dituena: lau puntu kardinaletatik Gortazar jaunaren jabetza. Ezponda bat, berrogeita bederatzi metro karratuko azalera neurtzen duena, eta honako muga hauek dituena: iparretik, auzo-bidea, ekialdetik aipaturiko Zuluaga jaunaren jabetza eta hegotik eta mendebaldetik, Gortazar jaunarena. Soloburua deituriko gaztainadi-mendia, zazpi mila bederatziehun eta berrogeita zortzi metro eta hogeita hamalau dezimetroko azalera neurtzen duena, eta honako muga hauek dituena: iparretik, hegotik eta mendebaldetik, Gortazar jaunaren jabetza eta ekialdetik, Isidro Ibarreche jaunarena. Echeburua Goitia deituriko sastrakaditik bereiziriko zatia, hogeita bederatzi mila ehun eta hogeita zortzi metro eta hogeita bederatzi dezimetro karratuko azalera neurtzen duena, eta honako muga hauek dituena: iparretik, hegotik eta mendebaldetik, Gortazar jaunaren jabetza eta ekialdetik, zati hori bereizi zen mendiaren gainerako zatia. Murgia Goitia deituriko harizti-menditik bereiziriko zatia, hirurogeita hemezortzi mila bostehun eta berrogeita hiru metro eta hirurogeita hamabost dezimetro karratuko azalerarekin, eta honako muga hauekin: iparretik, Gortazar jaun-andreen jabetza, hegotik, zati hori bereizi zeneko mendiaren gainerako zatia, ekialdetik, Pablo Basabe jaunaren jabetza, Lemoako herri-lurrak, Uhagon Isidro Ibarrecheren jabetza, eta mendebaldetik Ana Garayren jabetza eta Uhagon.

Egungo titularrak:

José María Belaustegui Orue jauna

Juan Manuel Belaustegui Orue jauna

María Luisa Belaustegui Orue andrea

puntos cardinales con propiedades del Sr. Gortazar. Otra heredad llamada Echaburua, que mide una superficie de mil setecientos cuarenta y cuatro metros y noventa decímetros cuadrados, y linda por los cuatro puntos cardinales con propiedad del señor Gortazar. Otra heredad llamada Solobarria, que mide una superficie de cinco mil ochocientos diecinueve metros y trece decímetros cuadrados, y linda: por Norte, con ribazo y río, por Sur, con camino vecinal, por Este con propiedad del Sr. Gortazar, y por Oeste, con la de don Juan de Zuluaga. Otra heredad llamada Castañeta, con una superficie de mil seiscientos cuarenta y tres metros y setenta decímetros cuadrados, y linda: por Norte, con camino vecinal, por Este, con propiedad del Sr. Gortazar, y por Sur y Oeste, con propiedad de don Juan de Zuluaga. Otra heredad llamada Chicharra, con una superficie de mil cuatrocientos cuarenta y nueve metros y cincuenta y un decímetros cuadrados, y linda: por Norte, con propiedad de don Juan de Zuluaga, por sur y Este, con la del Sr. Barón de Areyzaga, y por Oeste, con la del Seños Gortazar. Un prado que mide una superficie de cinco mil cincuenta y nueve metros y treinta decímetros cuadrados, y confina: por los cuatro puntos cardinales con propiedad del Sr. Gortazar. Un ribazo, que mide una superficie de cuarenta y nueve metros cuadrados, y linda: por Norte con camino vecinal, por Este, con propiedad del dicho Sr. Zuluaga y por Sur y Oeste, con la del Sr. Gortazar. Un monte castañar llamado Soloburua, Goitia, que mide una superficie de siete mil novecientos cuarenta y ocho metros y treinta y cuatro decímetros cuadrados, y linda: por Norte, Sur y Oeste, con propiedad de Sres. Gortazar, y por Este, con la de don Isidro de Ibarreche. Trozo segregado del jaro llamado Echeburua, Goitia, que mide una superficie de veintinueve mil ciento veintiocho metros y veintinueve decímetros cuadrados, y linda: por Norte, Sur y Oeste, con propiedad del Sr. Gortazar y Este, con el resto del monte de que se segregó este trozo. Trozo segregado del Monte robledal llamado Murguia, Goitia, con una superficie de setenta y ocho mil quinientos cuarenta y tres metros y setenta y cinco decímetros cuadrados, y linda: por Norte, con propiedad de los Sres. Gortazar, por Sur, con el resto del Monte de donde se segregó este trozo, por Este con propiedad de don Pablo Basabe, comunales de Lemona, Uhagón e Isidro Ibarreche, y por Oeste, con propiedad de doña Ana Garay y Uhagón.

Titulares actuales:

D. José María Belaustegui Orue

D. Juan Manuel Belaustegui Orue

Dña. María Luisa Belaustegui Orue

Beraz, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legea garatzen duen Erregelamenduko 17.2 artikuluaren arabera, bidezkoa da okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea; hain zuzen ere, zerrenda hori «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian», Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkarian eta Bizkaian gehien saltzen diren egunkarietako batean argitaratu beharko da. Orobat, desjabetu beharreko lurra Lemoan dagoenez, Lemoako Udalari ere zerrendaren kopia bat igorriko zaio, udaletxeko iragarki-taulan ikusgai jar dezan.

Hirugarrena.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20. eta 21. artikuluek eta Lege horren Arautegiaren 19. eta 20. artikuluek zehazten dutena betez, ebazpen hau «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» eta «Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean» argitaratzea, baita «Correo Español- Edición Bizkaia» egunkarian eta Lemona Udaletxeko iragarki-taula ofizialean ere. Orobat, interesdun guztiei ebazpenaren berri emango zaie.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Industria eta Energia Sailburuordetzan, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Bosgarrena.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2010eko urtarrilaren 25eko EHAAn (15. zk.) argitaratutako eragindako ondasun eta eskubideen zerrendan izandako akatsa zuzentzea. Izan ere, iragarki-datari dagokionez «2009ko abenduaren 30» agertzen den lekuan «2009ko azaroaren 30» agertu behar du.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 14a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

Procede, por tanto, conforme al artículo 17.2 del Reglamento que desarrolla la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, hacer pública la relación de los bienes y derechos de necesaria ocupación que deberá publicarse en el «Boletín Oficial del País Vasco», en el del Territorio Histórico de Bizkaia y en uno de los diarios de mayor circulación en éste. Igualmente, se remitirá copia de la relación al Ayuntamiento de Lemona, en cuyo término radica el terreno objeto de la expropiación, para su exposición en el tablón de anuncios.

Tercero.– Disponer en cumplimiento de lo que determinan los artículos 20 y 21 de la Ley de Expropiación Forzosa, y 19 y 20 de su Reglamento, la publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco» y «Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia», en el «Correo Español- Edición Bizkaia», y en el tablón de anuncios oficial del Ayuntamiento de Lemona, así como proceder a notificar individualmente a los interesados.

Cuarto.– Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía en el plazo de un mes a partir de la notificación de la presente Resolución, en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Quinto.– Corregir, conforme establece el artículo artículo 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común el error material de fecha indicado en el anuncio de relación de bienes y derechos afectados publicado en el BOPV de 25 de enero de 2010 (Boletín n.º 15), en el sentido de que donde aparece la fecha del anuncio «30 de diciembre de 2009», debe figurar «30 de noviembre de 2009».

En Vitoria-Gasteiz, 14 de abril de 2010.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.